

1. BALIO PROPOSAMENA

Gaur egungo gizartean, bakardadeak eta ongizate emozionalaren gabeziak eragin handia dute, bereziki adinekoengan. Aldi berean, txakurren jabe askok zailtasunak dituzte beren maskotak denbora tarte jakin batzuetan zaintzeko, eta adopzio-elkarteek etengabeko lana dute egoera hauei aurre egiteko eta adopzio arduratsua sustatzeko. Testuinguru horretan sortzen da gure proiektua: adinekoen ongizatea, txakurren zaintza eta adopzio arduratsua elkartzen dituen ekimen berritzailea.

Proiektuaren helburua da adinekoek lagun egiten dieten txakurrekin topo egiteko espazio segurua sortzea, ongizate emozionala eta gizarteratzea bultzatuz. Aldi berean, txakurren jabeek leku fidagarri eta profesional bat izango dute beren maskotak aldi baterako uzteko, eta adopzio-elkarteek aukera izango dute haien lana ezagutzera emateko, sensibilizazioa handitzeko eta adoptatzaile potentzialak erakartzeko.

Ekimen honek hiru alde nagusi lotzen ditu elkarren onurarako, direnak:

- **Adinekoek konpainia**, afektua eta bizi-kalitate hobea jasotzen dute.
- **Txakurrek arreta**, sozializazioa eta ingurune aberasgarria izaten dute.
- **Jabeek** espazio seguru bat lortzen dute haiekin ezin direnean egon.
- **Elkarteek segurtasuna**, laguntza eta gizarte-inpaktu positiboa lortzen dute.

Horrela, proiektu honek balio sozial handiko espazio bat eskaintzen du, komunitatea indartzen duena eta pertsonen zein animalien ongizatea erdigunean jartzen duena.